



“PRINCIPE DE VIANA”

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA
Fomento del Vascence



Delegado para el Suplemento
en euskara
MARCELINO GARDE

XV'gn. urtea
145 zebakia

Iruña - 1981 Uzt. - Agorrilla

Franq. conc.
N.º clas. 34/60

Director de la Institución
Príncipe de Viana
FERNANDO REDON HUICI

ZUEN ATARIAN

Berriz emen gera; bai, euskaldunok, emen gaituzute.

Aldaketa aundiak izan dira azkeneko urte auetan Napparroa'n eta Diputazioan; bai ta aldaketa bizkorrak Euskal Aldizkari onen inguruan ere. Aldaketa oiek diralarik, argitara atera gabe egon bear izan dugu, zori txarrez, luzaroan.

Gaur berriz sortu zaigu lanerako giro egoki gozoa. Eta emen gaituzue, etxejoaun agurgarria, etxejoandre on zabalara, etxejo seme-alaba gazte maitagarriok. Zuen atarian gaude berriz, sarrera eske. Emendik aurrera, mandatari zintzo zuen atarian izanen gaituzue utsik egin gabe.


Zer nai dugun? Gure izkuntzari laguntzea, Napparroa'n bizi-rik dagoen Euskara suspertzea, indar berriz bizkortzea. Euskara sendotzea besterik ez dugu nai.

Zuekin nai genduke mintzatu, zuek bait zerate Napparroa-ko izkuntza, zuek bait zerate Napparroa'ren erro ta sustraia. Gizakume jakintsurik ez dugu gaitzesten; ez ditugu politikariak ere gaitzesten; baiñan, ez da aiekin gure izketa; jarrai bezate aiek beren alorretan.

Orregatik, zuei atsegiñak zaizkizuen gaiak bakar-bakarrik erabilliko ditugu: gai apalak, noski, gai landerrak. Gu geurok ere jende apalak eta landerrak bait gera, zuek bezalakoak: erriko jendeak, Euskaldun soilak.

Zuekin gure gauzetaz itzegitera gatoz; euskaraz etorriko gera beti, Erriko euskaraz, ori izan da beti PRINCIPE DE VIANA euskal aldizkari onen mintzaera. Napparroa Napparroa

(2-gn. orrialdera)



Lizarra'tik

Estella'ko iriak badu euskaraz bere izena, LIZARRA; izen polita, noski, bai ta izen zarra ere; Jainkoak daki noizdanikoa! Eta nondik? «Lizar», «Eliza zar», Iri «edo» Ili zar?

«Lizarra» da bertako irarkola edo inprenta baten izena ere. Ta, begira, gauzak nolakoak diren! Lizarra'ko «Lizarra» irarkolatik, lizar-ostoa bezain eze, yori eta bizkor, aterako zaizu emendik aurrera «BIANA'KO PRINTZEA»ren euskal-aldizkari au.

Euskal-gauzen maitale andia izan da beti Lizarra Iri ederra. Ain zuzen, Lizarra'ko gauzetatik ezagunenetako bat Lizarra'ko Gaiteruak izan dira. Ai!, gure poza, gaita-jotzaille aien soñua bezala Euskal-Aldizkari onen kantua, Euskal-lerri guzian, pozik entzuna ba'litz!

EUSKAL ERRIKO LEIOA

denez gero, millaka urtetan, gure gurasoena izan den Euskara bera.

Naparroa izanen da gure al-karrizketaren gaia; ta Euskalerrri osoa; ta mundu guzia. Atzoko, gaurko eta biarko gauzetaz itzegiñen dugu alkarrekin, adis-kidetasuneko giro gozoan.

Zuen iritziak bakarrik kezkatzen gaitu. Zuek, Euskal Aldizkari onekin, asti atsegin bat igarotzen ba'duzue, zoriontsu aurkituko gera gu guztiok ere.


AITA ONDARRA, NAPAR KAPUTXINOA EUSKALTZAINDIKOA

Iraizotz'ko Polikarpo, ultzamarra ta kaputxinoa zen. Eta euskal gaietan anitz jakintsua zelako, Euskaltzaindia izeneko erakundean akademilaria zen. Urteek ez diote iñori ere barkatzen, eta oneri ere eldu zitzaion bere azken ordua. Goian Bedi!

Ark Euskaltzaindian utzitako utsunea betetzeko, beste naparra aukeratu zuten, ta ain xuxen ura bezala, kaputxinoa da: Aita Ondarra.

Zorionak Aita Ondarra'ri ta, bere aurrekoak bezala, lan ugari egin dezala gure Euskera gaxoaren alde.

TOLOSA'KO LABAYEN'DAR ANDONI'RI ANTZERKILARIEN OMENALDI EGOKIA



Andoni Labayen Tolosa'ko seme ospetsuetako bat da. Ango erriak CIT eta Ayuntamentuaren laguntzaz omenaldia eskeiñi dio Ekaina'ren 20 ta 21-gn. egunetan. Labayen, merezi menduz. Euskaltzaindiko ta Euskertzaintzakoa da; euskal zaletasunez beterik, gaztaroan asi zen idazten; 1918-gn. urtean argitaratu zituen euskal lenengo lanak, orduetik luma utzi gabe. Aintzagarri dugu Labayen, euskeraren alde egin duen lanagatik, batez ere antzerki edo teatro-alorrean, 60 euskal antzerki-lan idatziak bait ditu.

Gipuzkoa'ko antzeslariak omenaldi egokiena egin diote, Tolosa'ko «Leidor» areto ederrean, Labayen beraren «Andia'tar Domejon» antzerkia jarritz. Ain xuxen: Domejon'en denboran «baziren burrukak Gipuzkoa'n -Oinaztarrak, Ganboatarrak eta abar- eta erri xea elkartzeko lan aundia egin zuan gure Domejon'ek». Ortan zure osmoa: egitazko batasuna; bai, gure On Andoni eskribatzaille, pakegille ta aber-tzale maite ori!

BONBAK IRUÑA'KO UNIBERTSIDADEAN

Bigarren aldiz Iruña'ko Ikastetxe Nagusian bonbak lertu-arazi ta kalte andiak egiñak dira.

Lotsagarriak benetan orrelako gertaerak nun nai egiten direla, baiñan Unibertsidade batean orrelako gaizkeriak egitea, siñistu-eziña bezalakoa

DEMOKRAZIA

Demokrazia, errian errikosemeek agintzea da. Nola? Erriko semeek berak, askatasun osoan, erriko agintariak izendatuz.

Demokraziak, gizakume guztiei begirunea (errespetoa) erakustea eskatzen digu, gizakume guztien eskubide oro on-ezagutzea, itz batean esateko, gizakume oro gure lagun urko bezala maitatzea.

Gizakumeok bata bestearrekin itzegiñez eta bata besteari entzuz alkar ulertzen dugu, mintzoa bait da gizakumeon adigarrikerik nagusiena. Gizakumeok bakarrik dugu mintzatzeko gaitasuna. Abereak ez dira mintzaten; abereak adarka, aginka, ostikoka, atzaparka, indarzorokeribidez alkarrekin konpontzen dira. Indarrik geiena duena da, aien artean, nagusi; ez arrazoierik geiena duena, abereak ez bait dira arrazoiketarako gauza. Orregatik, arrazoiketari uko eginda indarkerira jotzen duenean, gizakumeak bere gizatasunari uko egiten dio, eta abere biurtzen da: basapizti!

Euskalerrria, gure Naparroa, demokrazizko erri eta demokrazia-aren aberri izan da betidanik. Orixe dira gure Fueroak, gure Lege Zarra: demokrazi utsa, demokrazi bikaiña, demokrazirik zarrena munduan!

Euskalerrria'n, Naparroa'n, baditugu atsegiñak ez zaizkigun erri-kideak. Demokraziak, ordea, errikide oiei ere entzutea eta pakean itzegitea eskatzen digu: oiei ere eraspene osoa erakustea.

Ain zuzen, auxe dugu gizarte batek lortu lezakean izaerarik miresgarriena: eraspenerik merezi ez dutenei eta eraspene erakusten ez dutenei ere, eraspenez begiratzea, eraspene osoa eskeintzea. Ta orixe dugu demokrazia!



AU, BERRIZ, EZ DA DEMOKRAZIA: Denok ikusi genuen eta sekulan ere aaztu bear ez dugun argazki au, mundu zabalera joan da. Otsailla'ren 23'ko gau luze ura!

Irujo Manuel Jauna il zitzaigun!



*Jesus Malon Vicitor
Diputado Foral de Navarra*



Ha muerto Don Manuel de Irujo. Con él desaparece una de las glorias del PNV y un hijo ilustre de Navarra. Su gran humanidad le acercó al hombre, a cualquier hombre, a la sociedad, haciéndosele asequible siempre.

Fue políticamente un hombre honesto, fiel a sí mismo y a sus ideales. Practicó la democracia respetando su libertad y la de los demás.

Tuvo una gran capacidad de convocatoria que le permitió ostentar diferentes cargos políticos, desde Diputado Foral a Ministro.

Cuando llegó al Parlamento Foral era ya un anciano, aunque con un gran vigor físico; lo demostraba hablando y al estrechar la mano. Era cordial y muy respetado por todos.

En lo poco que habló con él, siempre salió la palabra «trabajo», y la «necesidad de entenderse», así como el «amor a Navarra», recordando con cariño su paso por la Diputación.

Descanse en paz.

On Manuel! Txikitandik ezagun eta maite izan zenuen gure Naparroa. Onen ezaguera eta maitasuna sartu zitzaizkigun, aurtzaroen ere, zu bide ziñelakoz. Eskarrik anitz! (G. tar M.).

Urteberri egunean il zen Iruña'n, 90 urte zituelarik, Irujo'tar Manuel Jauna, berez Lizarra'ko semea, eta Naparroa'ko gizon ospetsuenetako bat.

Gure Aldizkariaren arpededuna zen Don Manuel, ta bere atzerri-aldian nolako irakurtzalea! Irujo'ren eriotzaren egunetan, berriz agertzeko zorian zegoen gure Aldizkari au, ta aren omenez presturik genituen lan batzuk. Orrenbeste denbora ondoren, bat bakarrik argitara emanen dugu: Malon Diputadu Jaunak biotzez idatzi zuena.

Manuel de Irujo il zaigu! EAJ-PNV'ri kide aintzagarri bat galdu zaio. Eta Nafarroa'ri seme argitsu bat. A, nolako gizona zen Irujo'tar On Manuel! Gizonaren —edozein gizonen— adiskide zintzoa izan zen; gizonari, gizadiari, zabalik izan zuen biotza.

Politikagintzan, gizon garbia; bere gogokizunen serbitzari zintzoa. Demokraziaren maitasunean bizi zen, bere askatasunari eta besteen askatasunari zion begirunez.

Edozein lan anditarako gai izan zen, izan zituen politikazko kargu andi guzietan: Nafarroa'ko Diputadu izatetik Gobernuan Ministro izateraño.

Agure zarra zen Nafarroa'ko Parlamentari erriak izendatu zuenean; baiña bizkorra, mintzatzen eta eskuak estutzen neka-eziña. Gizon atsegiña guziekin eta guzientzat itzal andiko gizona.

Gutxitan itzegin aal izan nuen berarekin, baiña beti entzun nizekion itz auek: «Iana», «Nafarroa'renganako maitasuna», baita «elkar-aditu bearra» ere. Gogo atsegiñez oroitzen zituen Diputazioan igaro zituen egunak. Beza pakea On Manuel'ek!

dugu. Ta denok, ago batez kondenatu edo gaitzestu bear, Unibertsidade bat orrela ankaz gora bota naia, ekintza beltza bait da kulturaren alorrean.

Il onen azkeneko egunetan, Diputazioak 40 milloi peza ematea erabaki du Unibertsidade ortan izandako ondaketak konpontzeko.

GIZON ONAK MUNDUAN

Badaude gizon onak mundua. Pennsylvania'n iru gizon il dira Benjamin Walkers 8 urteko aurrea, putzu batetik ateratzekoan. Italia'n, berriz, 6 urteko Alfredo Rampi, zulo ertsi ta sakonean erori zen. Alperrikakoak lau gau ta egunez egin ziren alegiñak. Ala ere, gizon onen biotzetan bizirik agertzen zaigu Jainkoaren Agindua: «Maita ezazu laguna».



EUN DA ZORTZI -108- MILLOI NAPAR IKASTOLETARAKO DIRU-LAGUNTZA

Naparroa'ko Diputazioak dirutza ori banatzea onartu du, azkeneko ikastaroaren sei illabeteko laguntz-ordainketa.

Laguntza ori onela banatzen da: 240.000 pezeta Eskola-aurreko (Pre-escolar) maillakoeri, ikas-gela bakoitzagatik; 170.000 pezeta EGB'ko laguntzadun diren ikas-gela bakoitzagatik; milloi bana, EGB'n dauden ikas-gela bakoitzagatik. Danera, 108 milloi.

Ona emen zeaztasuna:

ESKOLA-AURREKO MAILLAN

Altzatsu	4.560.000
Agoitz	480.000
Aranatz	240.000
Auritz (Burguete)	240.000
Auritz-berri (Espinal)	240.000
Barañain	480.000
Biana	480.000
Bidasoa'ko Bera	720.000
Billaba	240.000
Deigatzelu (Dicastillo)	240.000
Eaurta (Jaurrieta)	240.000
Elizondo	960.000
Etxalar	240.000
Eugi	240.000
Gares (Puente la Reina)	480.000
Goizueta	240.000
Huarte (Iruña'koa)	720.000
Ilunberri	240.000
Iruña'ko «Francisco Jaso»	960.000

Iruña'ko «Herri Ikastola»	1.920.000
Iruña'ko «Ikast. Munic.»	5.040.000
Iruña'ko «Paz de Ziganda»	2.160.000
Iruña'ko «San Fermin»	3.360.000
Irurtzun	480.000
Jaunsaras	240.000
Larraintzar	240.000
Leitza	960.000
Lekunberri	240.000
Lesaka	720.000
Lizarra	1.680.000
Olague	240.000
Otxagi (Ochagavía)	240.000
Tafalla	960.000
Yantzi	240.000
Zankotza (Sangüesa)	480.000

EGB'EKO MAILLAN

Altzatsu	13.000.000
Bidasoa'ko Bera	4.000.000
Elizondo	7.000.000
Iruña'ko «Francisco Jaso»	2.000.000
Iruña'ko «Herri Ikastola»	3.000.000
Iruña'ko «Ikast. Munic.»	18.000.000
Iruña'ko «Paz de Ziganda»	3.230.000
Iruña'ko «San Fermin»	4.420.000
Leitza	7.000.000
Lesaka	3.000.000
Lizarra	10.000.000
Tafalla	2.000.000

Euskararen aldeko laguntza geiegizkoa dela ez dugu sekulan esanen; ainbeste'ko pobretasunean eroria dago, beste denboretan Naparroa'ko iri geienetan «nagusia» zen mintzaera.

NAPARROA'KO TELEBISTA

San Fermin bezperan asi dugu Napar Ikust-irratia lanean. Oraingoz Iruña inguruan bakarrik ikusten da, eta ederki ikusten da eta entzun ere; gerora, Naparroa guzian: ordurako indartsuago izango bait da tresna ori.

Arratsaldeko 2'15-etan, TVE'ko anitz gizon ezaguna den Polentxo Soltxaga, Tafalla'ko semea, asi zen lenengo agurra esanez. Urrangoan, jaietako suziria, Zezen-lasterketaren karrikak, Tudela'zko berriketa, Napar Parlamentu ta Diputazioaren politikazko berri, elkarrizketa batzuk, arratsaldeko 3'etan,



Aurtengo «Sanferminetan», gauza berri bat: lenengo aldiz, emazteki batek piztu zuen jai-bezperako su-ziria: Elisa Txakartegi, Iruña'ko Iri-Batzarrekoak oi u egin zuen ezinbestezko: «Gora San Fermin!»

EUSKARAZ bukatu arte; ain zuzen, aurtengo Naparroa'ko bertsolarien Txapelduna den J.P. Mendiburu heletarrak azken-agurra bota bait zuen.

Napar Ikust-irratia lenengo saioan, azken-agurra asiera ona izan da; Jainkoak nai dezala asiera eder au ez dedin azken-agur gaiztoa izan.

SANFERMINETAKO KALTEAK

Iruña'ko karriketan dauden loretegiek, beste urtetan bezala, kalte andiak izan dituzte joan diren jaietan. Kalte andienak: 4.000 landare orobat ondututa, 2.500 metro lauki belardi, belarrik gabe; zugaitz sendo bat ere, errotik aterata an gelditu zen lurtean etzanda; eta bazter guzietan, ontzi ustiak, botil autsiak eta zikinkeria ugari.

Ongi da jaietan atzeritarrak etortzea eta etxeko gazteak alaitsu ibilli nai izatea, baiñan bazter guziak ondutzen ibiltzea, gauza ez-berdiñak ditugu.

EZKONTZA OSPETSUA LONDRES'EN

Uztailaren 29'an ezkondu dira Ingalaterra'ko Karlos Erregegaia ta bertako neska gazte ta lirain den Lady Diana, «Arantzarik gabeko arrosa» izenez deitua izan dena. Neska ingeles ori, ain xuxen, Naparroa'n Erregetzako izan zen baten ondorengoa jatorriz nunbait. Esan dutenez Infante Ramiro de Navarra zenarekin zer ikusia omen du.

Karlos orren ama, oraingo Erregeña, ezkondu zenean, apaltasun andiz egin zuten; oraingo ezkontza, ordea, ospe ta aintza andiz egiña izan da. Telebistaren bitartez mundu zabalean milioiak ikusi dute. Ezkon-berriak zorionekoak izan ditezela.



Ingalaterra'ko Erregegai ezkondu-berriek agur egiten dute, Eliza'tik ateratzekoan

NEUMONIA ATIPICA, EZ! OLIO ILTZAILLEA DA

Uda ontako izurrite izugarriari geuzurrezko izena eman zioten.

Orain guziek dakigu gaitz orren iturria olioan dagola, kolza landareko olioan. Olio berezi ori ez da gauza janariak prestatzeko, gustu txarrekoa bait da. Baiña, merkea da; merkea erosi ta garesti salduz... Erbiaren lekuan, katu zaarra. Zoritxarrez, aldaketa egiteko gaiak, potzointsuak oi ziren, eta Agorrila'ren azkenean 110 giza-lagun il dira. Dirua galgarri! Betiko dirua!

DIBORTZIOA

Or dago «dibortzioa», esaten dioten bezala, edo ezkontz-austeko eskubidea.

España'ko parlamentariak legezko egin dute ezkontz-austea. Emendik aurrera, alkarrengandik beren buruak bereizi nai dituzten senar-emazteek, izango dute ori egin aal izateko eskubidea. Bai, beintzat, Estaduko Legearen aldetik.

Eta Elizaren Legearen aldetik?

Ori beste kontu bat dugu. Elizaren Legearen aldetik, ez! Elizaren Legearen aldetik ez da beiñere zillegi izango ezkontza baten urratzea. «Jainkoak batu duena ez bezate gizakumeek urretu», esan digu Jesukristok berak.

Orregatik, arrazoi dute gure baserrietako jendeek, senar-emazteen arteko lokarria eriotzak bakarrik desegin dezakela, esaten dizutenean.

—Aizazue! Zuek, idazle oiek ez al zerate, ori esatean, politika egiten ari»??, galdetuko du bear ba'da norbaitek.

—Ez, adiskidea; ez gera politika egiten ari. Ez gera Elizeko sermoi bat botazen ari. Bakar-bakarrik, Elizak ezkontz-austerik sekulan onartuko ez duela esaten ari gera, gure irakurleak —geien geienak, ia denak— kristauak bait dira.

ALKOHOL IZUGARRIA

MEDIKU ZAARRA

Alkohol-etaz asko ta asko esan genezake, bañan asteko beintzat, ez dago esan bearrik edari kaltegarria dela benetan osasunarentzat; neurrietatik atera ezker, ori ala dela danok dakigulako eta sarritan ikusten ari geralako.

Gogoan beti euki bear degun gauza auxe degu, alegia, gaurko egunetan asko arkitzen dirala alkoholizatuak, sekula santan beinere moskurtua gabeak izan arren: Ori nola leiken galdetuko du irakurle batek baño geyagok; ta erantzuna au izan bear: alkoholak janariak bezela gure soin barruan daukan eginkizuna, berogarri ta indar-emalle izatea da; butano gasolina, edo beste antzeko gai askoren antzera.

Alkohola gure barruan butanoren antzera erre egiten degu, gure soña berotuz gañera, indar-emalle izan dedin len esan bezala, gure biotzak bere eten gabeko lanean jardun dedin batere gelditu gabe;

gutako bakoitza batera ta bestera oñez ibilli gaitezen; gauz astunak jasotzeko gai izan gaitezen; gure soñak gau ta egun beti, bere baitan 37 inguruko bero-neurrian arki dedin; berogarri ori gabe soña ozturik, bizi eziniñk eriotza letorrelako; eta beste egin-bear askotarako bear-bearrezkoa degu alkohola edo beste janariak erretzea.

Alkohola bere neurri egoki batean artu ezker, artzen den guzia erretzen degu gure barruan, erre gabe alkoholen arrastorik gelditu gabe. Bañan, geyegi artu ezker, zurrut geyegi egin ezker, alkoholkeria, jankeria, bezala txarra denez, ez gera gauza, artutako guzia erretzeko. Ta erre gabe gelditzen den alkohola gure soin barruan

banatzen da: zati bat gibelean, beste puska bat biotz eta odol-bideetan, ta puska bat kaskezurreko muñetan. Eta erre gabeko alkohol orrek, gelditzen den tokiak ondatu besterik ez ditu egiten; orrela sor-

tzen dira gibelesko, muñetako eta beste lekuetako gaitzak; alkoholak sortu arazitako gaitzak.

Gutako bakoitzak bear degun alkohol-neurria oso ezberdiña izaten da, alde aundia izanik batzuen eta besteen artean. Kontu egin dezagun gizon bat, lan gogorretan ibilli oi dena: aizkolari, kiroltzale, batera ta bestera oñez egun guzian gelditu gabe ibiltzen den oyetako bat dela, adibidez; ta jakiña, gizon orrek alkohol geyago artu arren, artutako guzia erre egiten du, bere egun guziko ekintzarekin, ta bere barruan ez da alkoholen arrastorik ere geldituko, txokoren batean gelditurik kaltea egiñez. Bañan beste aldetik kontu egin dezagun gizon baten bizimodua nekerik gabekoa dela, adibidez: lan-gela batean geldirik ordu luzeetan egon oi den oyetakoa, nekerik eta izerdirik eteratzen ez duen oyetakoa, egun guzian exerita igarotzen duenetako bat; ta jakiña, bere ekintzarako alkohol gutxi naikoa duela agerian dago; ta artutako alkohol puska bat erre gabe gelditu bear bere soin barruan; neke gutxirekin, alkohol erre bearrik ez duelako; ta orrela gabeko alkohola barruan gelditurik, joaten den txoko guziak ondatzen ariko da.



Ezta filosoforik, ez teologorik, ardoari neurria artuko dionik...

Gizon aundiak ere ikusi ditut nik beren mozkorra ezin disimulaturik.

Erriko kanta; ardo-kanta; irri-kanta. Amaika par eta irri egin izan dugu euskaldunok, mozkeria dela-ta. Ala ere, mozkeria ezta Euskalerrri'an txantxetako gauza. Europa guztian geiena edaten duten errietan bat, Euskalerrria dugu. Eta ardoak beti ondamera dakar berekin, neurria galduz gero. Erriko kantak berriz dio;

Ezta filosoforik, ez teologorik, ardoari neurria artuko dionik...

Gauzak orrela, kontu egin dezagun orain, eguna joan eta eguna etorri, bi gizonek baxo-erdi ta kopa berdiñak artzen dituztela: bata lan neketsuetan dabillena; ta bestea, berriz, nekegabeko lanetan. Lenengo gizonak, izerdi patsetan lanean jarduten duenak, artutako alkohol guziak erreko ditu; bañan, lan ariñetan dabillanak ezin ori egin, ta erre gabeko alkohola gibelesko ta beste txokoetan itsatsita geldituko zaio, gibela eta ondazten ditula; ta ori eguna joan eta eguna etorri, denbora luzeetan; azkenian alkoholizata gelditurik, naiz eta sekulan mozkor-aldi bat euki ez. Ara nola bat alkoholizatu leiken, beinere mozortu gabe; ta beste gizona, besteak ainbeste alkohol artu arren, artutakoa erretzen duelako, ez du bere barruan, alkoholen kalte txikienik ere. Ortan dago gaurko egunetan askoren arrixkua: batere, nekerik gabe ibiltzea; etxetik lan-tokira berebillean oinez joan gabe, ta egun guzian geldi antzera, bere osasunaren kaltean.

SEME-ALABA MINDUAK

(New York'en gertatua)

Ameriketean egon artean —orain dala ogei urtekoa— uda pasatzera joan nintzan New York uri aundi artara. Bost illabete gelditu bear nuan an, 171'gn. Karrika'ko «Our Lady of Victory» deritzan elizan Parroku-lana egiten, gaixotu egin bait zitzaidan Parroku nere adiskidea.

Arratsalde bero batean, iru gazte etorri zitzaizkidan parrukiko idaz-gelara. Senideak ziran irurak, bi mutil eta neska bat.. Ogeita zazpi urte zituan anairik zarrenak, 22 neskatillak, 19 mutiko gaztenak.

Aurretik, telefonoz esan zidan mutil zarrenak arazo larria bazutela neri agertu-bearra. Zer zan ez zidan esan:

—Ez dira urrutizkiñez erabilli litezkean gauzak, Aita.

Ederrak ziran iru gazteak: aundiak, azal zurizkoak, ille ori-gorriaren jabeak; irlandarra zuten O'Brien abizena. Illun azaldu zitzaizkidan irurak. Ezer esateko luzaro egon ziran iru senideak nere maiaren aurrean eserita. Neska mintzatu zan aurrena:

—Aita, gu ez gera gure gurasoei barkatzeko gauza!

Ori esan eta negarrean, negar garratzean, lertu zuan neska gaixoak bere barrungo samiña. Mutillak ere negarrez asteko une-unean zeudela ikusi nuan-eta, pake pixka bat eraman nai izan nuan gazte aien biotzetara.

—Entzun, Margaret! Entzun zaidazute zuek ere, John eta Tom! Gauza auek ez dira une batean konpontzekoak izaten. Alkar ezagutzen dugu orain; ortaz itzegin, bai, laurok astiro itzegingo dugu, eta konpondu aal izango dugu zuen auzi minkatz ori.


—Ez, Aita, ez! Berealaxe konpondu bearra dugun auzietakoa da guk dakargun auzi au, esan zidan anai zarrenak. Etzi ezkontzen naiz ni, eta ordurako, nik beintzat, konpondu bear dut auzi au.

—Zertan datza?, galdetu nion.

Mutillak, arnasa arturik, jarraitu zuen:

—Gurasoak! Orain dala zortzi urte dibortziatu ziran gure gurasoak! Beste emakume batekin ezkondu zan gure aita eta beste gizonezko batekin gure ama! Geroztik, gu —katolikoak bait gera—igandero joan izan gera mezara; baiñan, zortzi urte

Umeez ez diote sekulan aitari, amari,
bestea utzita,
beste batekin ezkontzerik barkatzen



Gurasoen pauso txarrak, semeentzako negarrak.

auetan, ez dugu Jaunik artu! Ez gera konfesatu ere, gure gurasoei barkatzen ez diegulako; ez diegu barkatu nai ere!

Eta «ez diegu barkatu nai» esatean, negarrez asi zitzaidan mutilla, gaztelua aiñeko gizakume aundia; negarrez!

—Guk ere, gure anaiaren ezkontzan nai genduke Jauna-artu; baiñan, gorrotoko era ontan, Jauna-artzerik ez daukagu, zion neskatillak.

—Nolako gaitza egin digute gure gurasoak, Aita!, zion, berriz, Tom mutiko gazteak. Eta dana mindurik jarraitu zuen:

—Gu ez gera gaiztoak, Aita; baiñan, barkatu, barkatu... ezin dezakegu barkatu, Aita! Ulertu eizugu, Aita! Konprenditu gaitzazu, arren!

—Nik ulertzen zaituztet, esan nien. Eta egitazko itz orrek, sutan zeuden biotzak itzali nai zituan. Berriz esan nuan «ulertzen zaituztet», eta berealaxe:

—Baiñan, zuek ere zuen gurasoekin ulerkorak izan bear duzute, gizakumeak bait dira, ta gizakume bezela... griña txar baten mendean...

—Entzun, entzun!, erabaki zidan neskatxak. Gu ulerkorak izan bear dugu... Eta aiek ez al zuten gurekin ulerkorak izateko obligaziorik? Ez al dugu guk griña lizun batek baño geiago balio? Zer gera, ba, gu? Alprojakerizko gau zoro baten ondorio utsak?

DON BIXENTE



Otso gizon atsegiña, arras umore onekoa zen «Pellokoko»'erriko apaiza.

PELLOKOKOKERIAK

Larraun'go semea noski. Eta beti izan dute larraundarrek adarra-jotzallen fama.

Idaz-gela (despatxu) ederra du elizaren alboan, lenengo, bitzitzan, erri artako apaizak. Eta an zegoen apaiza idaz-lanean, «Pellokoko», «Jainkoak arratsalde on!», esanez, bertara sartu zitzaionena.

Izugarri atsegin izaten zitzaion apaiz jaunari «Pellokoko» azkarrari adarra jotzea. Orduan ere, argitu zitzaizkion begiak apaizari bere eliztar xelebrea-reen aurra entzutean.

—Apaiz jauna, esan zion onek boron-

daterik garbienarekin, gizon muttu kanpotar bat dago galdera egiñez atarian, Berorrekin egon nai omen du.

«Au duk nerea», pentsatu zuen bere barruan apaizak. Eta galdera au bota zion aurrean deusen kezkarik gabe zeukan «Pellokoko»'ri:

—«Nola jakin duzu, Pello, gizon ori mutua dela?».

—Oso errez, Jauna! Berak ber-berak esan bait dit!

—«To ziria, Apaiz jauna!» esan zuen «Pellokoko»'k bere-baitan ixilean.

ALBISU'KO MEARRA



MATTIN BERTSOLARIAREN ERIoTZA

Ez da izanen Mattin bertsolaria ezagun ez duen euskaldunik. Orregatik, orokorra izan da aren eriotzaren sendimendua.

Uztailla'ren 22'an il da, Baiona'ko gaxotegi batean, 64 urtekin. Iparraldeko Euskalerrian, Laburdi'ko Ahetze errian jaio zen gure Mattin Treku; mugaz beste aldean jaio, baiñan bere aitaren aita gipuzkoarra zen, Lezo'koa.

Eriotza aurreratu duen gertaera auxa izan da! ia bi urte direlarik, etxeko traktoreak azpian pasa zuen, beltzurrinak ondatuta utzirik. Uztailla'ren 22'an anka batean gangrena sortu-ta, operazio edo ebakuntza egiterakoan, lotan jarri zuten, eta antxe, mai gañean bertan, gelditu zen betirako lotan.

Alaia izan da beti Mattin; bere eriotzarekin batera, irriparra ere gutxituko zaigu Euskalerrian. Azkeneko orduan ere etzituen galdu bere umore ona ta alaitasuna, ta onela mintzatu zitzaion bere emazteari: «Nire gorputza bertsolari lagunaren bizkarrean eramatea naiko nuke; baiñan ez negarretan, aalik eta alaikienik baizik».

Bere bizian bai ta bere eriotzean ere, egia biurtu du bertsotan bein kantatu zuena:

pentsamenduan hau daukat beti:
triste denak alaitzeko!

Eta beti alaitasuna, noiznai eta nunnai, zabaltzen ibiltzen zalako, onela deitzen zioten: «Euskalerriko txoria», «Ahetze'ko danboliña», «Lapurdi'ko urretxindorra».

Azkeneko bere saio Usurbil'en egin zuen Uztailla'ren 4'ean, il baiño 18 egun aurretik. Ona emen bere azkenbertsoa, egiazko azken agurra:

Aski geienek antzeman dute
ari naizela zaartzen;
huntaz aurrera isil-isilik
egon beharko Ahetze'n.

Baina Usurbil maite dudala
egiazki dut aitortzen,
eta hortako bihotz zolatik
zaituztet denak agurtzen,

enkas ezpanaiz gehiago ni
Usurbil'erat etortzen.

Mattin'en eriotzarekin batera Euskalerriko osoa samindurik gelditu da, berak erakutsi bait zigun argi ta garbi Euskalerriko osoaren batasuna, Iparraldekoen eta Egoaldekoen anaitasuna.

Zeru ederrean arkitu bedi, mundu au alaitsuago egi-ten saiatu zen bertsolari yayua!

DUNIXI

Mattin il zaigu!

(«Goiz-Argi»'tik artuta)

Eizmendi'tar Iñaki, «BASARRI»

Itzali zaigu bein betiko
ain izar dizdiratsua,
amaika bider zabaldua zan
barrenen zeraman sua.
Gure artean bai izan ba'da,
uraxe umoretsua!
Bere doairik berezienak,
alaia ta paketsua.

Jostalaria zan berez eta
ateraldietan trebe;
entzule danak parrez jartzeko
askotan bera ERREGE.
Asarreturik, kopeta beltzez,
etzan ikusi beñere;
esaten zekiana zan, baiña
bai gero entzuten ere.

Gure artean ez da aztuko,
ez, Ahetze'ko semea,
ainbat gozamen emanda joan dan
langille bizkor, ernea.
Zuretzat ere iritxi, Mattin,
lurreko azken ueña:
ez da makala Euskalerrian
utzi dezun utsunea.

Sarri egoten nintzan ni, Mattin,
zurekin bildu egarriz;
Bidasoa'ren bi aldetan gu
kantatuak ainbat aldiz.
Danak txoratzen zenituan zuk,
etengabeko par-irriz;
ezin sinistu etzaitudala
ikusi bear nik berriz.

Samintasuna nagusitu da
zu lur ontatik joatean,
jakin dedanez zure gorputza
gaur sartzen dute lurpean.
Mattin maitea, murgildu zaite
zorian bete-betean,
zeru goietan kanta gogotsu
Xalbador'ekin batean.

Guk ez daukagu kemenik eta
guk ez daukagu indarrik;
Jaunak deitzean, joan egin bear,
ez dago esan bearrik.
Mutututako txori zar biok
gelditu gera bakarrik;
otoitz orduan beti gogoan
izango zaitu Basarrik'k.



BILINTX

Bilintx, izenez Indalezio Bizkarrondo, donostiarra zan, karlisten aurreneko gerratekoan jaioa, eta Donostia'n bertan, karlisten bigarren gerratekoan, illa. Donostia'ko **Bilintx**, aldi berean Errenderi'ko **Xenpelar**, eta geroxeago Pasai'ko **Txirrita**, a nolako iru bertsolari le-gua t'erdiko lurraldean!

Guda-denboran jaió, guda-denboran il; zori txarreko gizakumea izan zan bere bizi guztian **Bilintx** gizagaixoa.

Ume zala jausita, kokotza puskatu zuan eta itxura txarreko gelditu betirako. Orregatik, mutikoez aurrena, jende guztiak gero, «**Moko**» deitu oi zioten: «**Indalezio Moko**».

Bigarren karlisten guduan, karlistek Oriamendi maldatik jaurtitako bonba bat sartu zitzaioen etxean **Bilintx** zorigabeari. Bere gelan zegoan **Bilintx** pakean, ogegañean, uste gabeko bixita ura leiotik sartu zitzaionean; ta gelabarruan lertu bait zan bonba, zearo elbarriturik utzi zuan bertsolari paketsua.

Sei illabete bizirik iraun zuan oraindik, baña izugarritzko oñazez josia; 1876'aren Uztaille'ko 22'an atera zuan Jainkoak oñaze ikaragarri aietatik: Euskalerrri'ko Furoak kenduak izan ziran egunean. Egun berean il zitzaizkigun, beraz, Lege Zarrak eta Lege Zarren ain maitale izan zan **Bilintx** bertsolaria.

Aldizkari ontarako, gaur, **Bilintx**'ek «**IZAZU NITZAZ KUPIDA**» izenburu ipiñi zion bertso-salla aukeratu dugu.

Ez dakigu nor zan **Bilintx**'ek bertso auetan goratzen dun neskatilla. Itxi itzezu begiak, eta ikusezazu zure irudimenean donostiar-txo gazte maitagarri ura: lerden, lirain, bikaña; illedia, orixka eta begiak urdiñak; axala, berriz, zuria; ezpaiñak gorriak, eta ezpaiñetan irria. Meea gerria eta luzeak gona-gorripean iztarrak; oñak, berriz...

...oñak zebiltzan aidean...

So-egiozu irudimenaren begiekin asti batean, eta iriki itzezu gero gorputzeko begiak **Bilintx**'ek «**aingeru zuri berdingabe**» ura nola

abesten dun ikusteko. (Eta bertsoa kanta aal dezazun, emen ipiñiko dizut **Bilintx**'ek erabilli zuan doña bera).

Neretzako **Bilintx** Euskalerrria'k izan duan bertsolaririk atsegiñena da; ala ere, **Bilintx** bizi zala, bertsolari obetzat euki zuten baserritarrek **Xenpelar**, eta **Bilintx**'ek baño aipu geiago izan zuan Euskalerrri zabalean Iparragirre'k. Baña, **Bilintx** gure bertsolariatian aundienetakoa da esateko, bertsozale guztiak egingo dute nerekin bat.

Lekuona'k —Lekuona zaarrak— dionez, **Xenpelar** izan zan punttuen egokitasunari garrantzia ematen asi zan lenengo bertsolaria. Nere ustez, **Xenpelar**'eri aña zor zaio **Bilintx**'i arrezkero bertsolariek punttuak zaintzeko ipintzen zuten arreta. Ikusi itzezu «**IZAZU NITZAZ KUPIDA**» bertsoen punttuak: **arrosa, airosa, goza, poza**; edo, **kontsolagarria, egia, txoria, kabia**; edo-ta **darama, fama, dama, ama**.

Agian, 1'go eta 9'garren bertsoetan punttuak «**bat**» itz beraren esatea eta birresatea dirala, aurpe-gira botako didazu; bañan, bai bertsolariek, bai erriak «**bat**» bein da berriro erabiltze ori, ontzat artzen dute. Ontzat artzen du Lekuona'k ere; eta ez dezagun aztu, bertsolaritza-gaietan Lekuona dala len-lenbiziko maixua.

Punttuen egokitasunaren gaindik, irudimenaren bizitasuna eta irudien edertasuna dira **Bilintx**'en doirik aundienak; bertsolari baño geiago, egiazko olerkari, poeta, da.



Indalezio Bizkarrondo, BILINTX olerkaria.

Lekuona'k dionez, **Bilintx**'en «**BEIN BATEAN LOIOLA'N**» Europa'ko **epigrama** edo **olerki alairik** onenetakoa dala.

Baña bertsolari ere bai bait zan, **Bilintx**, ateraldi zorrotzak maiz izan oi zitun.

Bein batean, —Agur, **Bilintx**!, esan omen zion zutik ezin egonik zijoan mozkor batek. —Agur, **Balantx**! erantzun omen zion itzetik ortzera **Bilintx**'ek.

Beste bein, adiskide zirisartzalle batek:

—I, **Bilintx**; ire burua gazta zirudik!

—Zergatik?



—Zuri-zuria eta legun-leguna dagolako.

—Bai, ee? Ire burua, berriz, kanpusantua zirudik.

—Zergatik?

—Illez betea dagolako!

EGI'TAR BI



IZAZU NITZAZ KUPIDA

«BILINTX»

Loreak udan intza bezela
maite det dama gazte bat;
arri nik aña nai dionikan
ez da munduban beste bat.
Iñoiz edo noiz pasatzen ba'det
ikusi gabe aste bat,
biotz guztira zabalduzen zait
alako gauza triste bat.

Neskatxa gazte paregabea
Apirille'ko arrosa,
izarra bezin dizdizaria,
txoria bezin airosa.
Oraintxe baño ditxa geiago
nik ezin nintzake goza;
zori onean ikusten zaitut...
Nere biotzak au poza!

Ez al didazu antzik ematen
nik zaitutala naiago,
ai! mariñelak gau illunean
izarra baño geiago.
Nere ondoan zauzkatalako
pozez zoraturik nago.
Zu ikusteak alegratu nau;
triste nengoan lenago.

Nik ainbat iñork nai dizunikan
arren ez zazula uste.
Nere begiek beren aurrean
beti desio zaituzte.
Eguzkirikan ikusi gabe
txoria egoten da triste;
ni ez nau ezer alegratuzten
zu ikusteak ainbeste.

Arpegi fiña; gorputza, berriz,
ez dago zer esanikan;
izketan ere grazi ederra,
ezer ez dezu txarrikan.
Mundu guztia miratuta're,
zu bezelako damikan
agian izan diteke, baño
ez det sinisten danikan.

Nere betiko pentsamentua
nere kontsolagarria:
zu gabetanik ezin bizi naiz;
esaten dizut egia.
Zu ba'ziñake arbola, eta
ni baldin ba'nintz txoria,
nik zu ziñaken arbol artantxe,
egingo nuke kabia.

Amoriyoak nere biotza
zureganuntza darama,
erri guztian zeren daukazun
neskatx bikañaren fama.
Beste fortunik mundu onetan
ez dut desiatzen, dama:
aur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

Falta dubenak logratutzeko
itz egitea txit on du,
eta nik ere saiatu nai det
ote gindezken konpondu.
Gaur nagon bezin atrebittua
sekulan ez naiz egondu;
argatik, kolpez galdetzen dizut
nerekin nai zun ezkondu.

Ezkondutzeak izan bear du
preziso gauza txarren bat
ala esaten ari zait beti
nere kontsejatzalle bat.
Alaxen ere, aren esanak
oso utzirik alde bat,
ongi pozikan artuko nuke
zu bezelako andre bat.

Zerorrek ere ongi dakizu
aspaldi ontan nagola
zuregatikan penak sufritzen,
bañan, ordea, au nola!
Alaxen ere, nigana ezin
bigundu zaitut iñola:
ni zuretzako argizari naiz;
zu neretzako, marmola.

Nere biotza urtzen dijoa,
eta ez da misterio;
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen dio.
Begiak dauzkat gau eta egun,
egiñikan bi erri,
beti negarra dariotela,
zu zeralako merio.

Zu zeralako merio baldin
joaten ba'naiz lur-azpira,
gero damua eta malkuak
alperrik izango dira.
Bein joan ezkerre, oien birtutez
berriz ez ninteke jira.
Ori gertatu baño lenago,
izazu nitzaz kupira.



AU PENTSATU NUEN

Nik au pentsatu nuen,
bein zu ikusita:
«Ori bai dala guztiz
neskatxa polita!
Nai ba'lu nere izan
—gaude ezkongai ta—
maiteko nuke nola
ama eta aita,
nere bizia baño
geiago're... baita!»

«BILINTX»

BEIN BATIAN LOIOLA'N

BILINTX

Bein batian Loyola'n
erromeriya zan;
antxen ikusi nuen
neskatxa bat plazan:
txoriya bañan ere
ariñago dantzan;
uraxen bai pollita,
an pollitik ba'zan.

Esan niyon desio
senti nuen gisan:
arekin izketa bat
nai nuela izan;
erantzun ziran ezik
atsegin ar nezan,
adituko zirala
zer nai niyon esan.

Arkitu giñanian
iñor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazi zizkidan;
kontaktuko dizutet
guztiya segiran:
zer esan niyon eta
nola erantzun ziran.

—Dama polita zera
polita guztiz, ai!
bañan alare zaude
oraindik ezkon gai.
Ezkon gaitezen biyok,
esan zadazu «bai»!
—Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Ja, jai!

KONTZESI'rentzat

«BILINTX»

Kantatutzera indar aundiko
desio batek narama;
Kontzesi, zuri nai dizut eman
merezia dezun fama.
Gure Probintzi Gipuzkoa'koan
berdiñik gabeko dama,
bedinkatua izan dedilla
zu egin zinduen ama!

Ointxo politak, gerría mia,
grazia milla petxuan,
lepo biribil dirudiena
egin berria tornuan;
pare gabeko begi argiak,
ille ederra buruan:
zu baño aingeru politagorik
ez da izango zeruan.

Beti ariko naiz Jaunari eskaka
ondo izan zaitzela;
etzazula uste nere bizian
zutaz aztuko naizela.
Eskumuñak maiz bidal nazkizu
orain artian bezela;
ainbeste egin bear didazu,
penaz ilko naiz bestela.

Izar argi bi falta dirala,
zeruan sortu da gerra;
al dakizu nork ostu dituen,
beltxeren begi ederra?

BILINTX

BILINTX

BIOTZ- -BIURTZE

Biur:
ur
zikiñak atera.
Ertz
batetik bestera:
okerretik
onera;
estuetik
zabalera;
loietik
garbira;
menpekotik
libertadera;
bekoizkeritik
zabalgunera;
norbekokeritik
maitasunera...
Leizetik
mendi-erpiñera,
ito-bearretik
arnas lasai batera...
Beeko osiñetik
goiko tontorrera,
burrukatik
pakera,
barrutik
atera...
Neretik
zurera...

ARRINDA

ZORTZIKO

Bilintx'ek jarritako zortziko au
kantatu zen -1874'ko Erregeen
gabean-soldadu zaurituen alde.

Ikusita desgrazi
erituarena,
penaz nori etzaio
urtzen biotz dena?
Da oieri ematea
nork al dezakena,
zerua irabazteko
obrarik onena.

BILINTX



BIZI INDARREZ BETERIK

PAULIN



Negarrez dut biotza.
Odol gorria dauka
min erioetan.
Maitasuna sentitzen,
anai onak bezela
zure agurretan.

Zure jakituriak,
gaztea nintzalarik,
dardaratu nindun...
Adimen ta biotzaz,
bizi indarrez beterik,
zer esaten zendun..?

Buruz, egizko ziñan,
biotzez maitasuna,
oro euskalduna.
Izatez arturiko
bitxirik bikaiñena
zan argitasuna.

Eguzkiak goizean,
bizi argi beroa
dario lurrari;
zuk gogorik onenaz
askatasuna emon
nai Aberriari.

Naparroa Euzkadi'n,
landugarria jatzun
neke latz artean;
jatorriz, da gurea
Aberri lur osoa
askatasunean.

Gizonaren gogoa,
ontasun garbietan,
miretsi nai neuke;
Jeldar gizon jatorrak
egiz arritu nabe,
iñoiz, aspertzeke.

Zure leialtasuna,
Jainkoaren aurrean,
gizonei on eiten;
zuzia itzi dozu
izarren irudira
lurra argituten.

Oroimen indartsua,
on indarrez egiña,
sartu da lurrean;
maitasunaren sua
biztuta itzi dozu
euzko biotzean.

Jainkoa maite zendun...
Zorioneko gizon,
gaur, Aren aurrean;
lurra eder dalarik,
bakea zer ete da
Aitaren etxean..?

EUSKAL BARATZA

«EUSQUERAREN BERRI ONAC»

A. KARDABERAZ

Maixu bikaiñena den Aita Kardaberaz deitu dugu «EUSKAL-BARATZ» ontara. Berak ongi landu zuen eta berak ongi lantzerak erakusiko digu.

Ernani'n sortua 1703'gn. urtean, 66 urtekin il zen Italia'n atzerriratua. Mixiolari sutsua zen A. Kardaberaz; lan aunitz egin zuen euskaldunen Fede ta izkuntzaren alde.

Bertze liburuen artean, gure Iruñe'an argitaratu zuen -1761'gn. urtean- «EUSQUERAREN BERRI ONAC» liburu xarmanta, euskeraz irakur eta idazten erakusteko.

BESTE IZKUNDEEN ALDEAN EUSKARA

Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki?

Beste izkondeak nastu ta batera ta bestera ibilli dira. Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte auetan beti nasgabe, beti garbi gorde izandu da.

Txantxetan esan oi da, edo Euskaldunak esan oi dute, Jaungoikoak Paradisuan Adan gure Aitari euskeraz «**Adan, non zera?**» esan ziola.


Antziñako izkera zarren artean, hebreoa beti kontatzen da; onegandik, beste izkerak sortu ziran; latiñetik Italia'ko, Frantzia'ko ta España'koa. Baña euskerak latiñaren ume nola datekean, edo nondik bata bestearen antza duen, probatzea, orren erraz ezta.

Dana dala, griego ta latiña beti estimatuenak izandu dira. Gizon jakintsuen artean beti ibiltzean oien zori ona egon da.

Gure euskerak bazter auetan orrelako gizaseme andien patu onik izan ezta. Baña, bere modura, marabilia txikiago ezta, euskera soll-soll, bakarrik edo nik eztakik nola, bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen.

Alere asko, egieki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskararen, ez pada euskaldunen desonra: bada oiek polikitu, apaindu ta edertu bearrean, lotsarik gabe, berak beren nagitasunez itxustu, larritu ta desegin izan dute.

Baña gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, EUSKARAK BURUA JASOTZEA JAINKOAK NAI DU. Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskarak iraungo du. Esan oi dana: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskara ezin utzi edo kendu diteke.



AURTZOEN TXOKOA

EUSKERA

Euskera polita da. Euskera andia da. Euskera garrantzitsua da. Euskera gurea da. Euskera zaindu eta itzegin bear dugu.

Gure izkuntza polita, gure izkuntza andia! Oso garrantzitsua zarelako, maite zaitugu guk. Eta ez zaitugu galduko, izkuntza maitea, gurea zarelako.

Zure itzetan agertzen dira gure pentsamenduak; zure itzetan agertzen dira gure expresamenak. Orrelakoa zara, gure izkuntza maitea.

Egiarte LARUMBE
LIZARRA Ikastola

Egun batean, gizon batek pentsatu zuen eskursio bat egitea erri batera.

Etzetik atera da eta kamioz kamio ba-die, eta aurrean kamio asko daude eta naasi egin da. Leon'era joatea pentsatu zuen eta okerreko kamioz sartu zen.

Gizon batekin aurkitu zen eta galdetu zion:

-Zer falta zait Leon'era aillatzeko?

Eta gizonak erantzuten dio:

-Itsatsa...

Arantxa SAGASTIBELZA
LEITZA

Ziren bi aizpa euskaldunak eta batek gizongai erdalduna zuen. Au nonbait aspertu egin izan bear zitzaion eta esan zion:

-Yo me marchó!

Andregaiak galdetu zion aizpari zer esan zuen, eta aizpak erantzun zion:

-Demoni eroa! Ori ez dion ententidu? Martxo arte ez dela etorriko, esan din.

M.^a Jesús JAUREGI
LEITZA

«XALBADOR-SARIA» Iruña'ko Aurrezki Kutxa

Iruña'ko Aurrezki Kutxa Municipalak, bostgarren aldiz «XALBADOR-Saria» eratu du, euskerazko idaz-lan onenentzat.

Danera 125.000 pzta. banatuko dira. Dirutza ori egille bakar batek irabazi lezake, baiñan bai'ta ere irabazle batzuen artean banatu dirutza ori, bakoitzaren idaz-lanak sarituz.

Idaz-lan oiek luzeak edo motxak izan leizke; danera gutxienez 20 folio edo papel luze, ta geienez 150 orrialde, makiñaz idatzita, alde batean bakarrik eta bi utsune utziz.

Sari onen epea, Azaroa'ren 14'ean eta eguerdiko amabietan bukatuko da.

SUKALDEKO TXOKOTIK

BI LANTEGI, BI MILLA BURUAUSTE

FRAXKE

Ementxe natorkizue, atsedean txiki baten bearrean. Bai, larri nabil aspaldi ontan. Larri nabil eta la-saitzeko aierrez nago. Nora jo? Etxean ez bait dut ezer adierazi nai. Nork daki zuei ez ote zaizuen olakoren bat gertatzen! Ala ez izanda ere, esanez, arinduko nai-zen ustean nago.

Andik eta emendik entzuten nuen, an eta emen ikusten nuen, alde guzietan susmo bera, mo-dazko susmoa, berri berdintsuak tokirik geienetan: ez dakit nongo Maritxo eta beste alako Mikelatxo lanean asi zirela. Bai, lanean, denak, etxetik kanpora. Eta ez gaz-teak bakarrik. Baita ondutako etxeoandreak ere. Alaxe ari zirela, gure auzoko Manaxi eta Arantxa ere, etxeko lanak aski ez zirela, beste lan berria artu?

Ni, bitartean, etxeko eginbear guziak ezin betez, batzutan laguntzaille ta guzi, bestetan bakarrik. Eta nere afizioa irakastea izanik, zenbat denbora gelditzen zitzaidan bada, alor ontan zerbait egiteko!

Poliki poliki gure aurrak zuz-pertu ziren eta asi zitzaizkidan tentaldiak:

—Emakume ikasiak bear omen dira. Zuk dakizuna, Praxke, nik ba'neki!

—Umeak azi ezkeru ere diru pixka

bat irabaztea ez da, bada, ain gaizki etortzen...

—Gure familietan dauden gastue-kin!

Nere senarrak errespeto guziaz bein baiño geiagotan orrelakoei ez kausorik egiteko esaten zidan. Gure etxeko lanekin naiko nuela, umeak azitzea ez zela txantxetako lana eta, oraindik denbora geldit-zen ba'zitzaidan, joateko pasea-tzera.

Baiñan ez nion kausorik egin.

Lantegi ezin ohea tokatu zitzai-dan etxe inguruan. Eta nik itsu itsuan artu egin nuen. Orrelaxe bukatu zen ura.

«Bukatu zen» esan dut?

Bai, bai, bukatu zen garrantziko gauza bat: nere patxada etxean, etxeko goxotasun ura, xeetasun asko bukatu ziren. Ordu arte etxean, denaren zain; geroztik, etxera nekatua...

Ez naiz ezkorra. Ez da organiza-zio falta. Gure etxean denak saia-tzen dira nola edo ala laguntzen.

Badugu laguntzaillea ere. Gure «moxta» egunero bi ordu etortzen zaigu. Baiñan etxeko lanak ez bai-dira bi ordutan bukatzen!

Len gure otorduak denak dife-renteak izaten ziren. Ez naiz sukaldari ona baiña gureei gustatzen zitzaien bezela ikasten alegiñak egin nituen eta goiza artantxe pasatzen nuen, eginkizun ura emeki emeki betetzen.



Orain?

Ez al duzue ezagutzen asotitz zaar ura: «Goizean sals otsa, bazkaria berandu»? Gaiñera bazkaria ez da janari batzuk maai gaiñean jartzea bakarrik. Zerbait geiago da. Maaiburuan etxeko-andrea ba'dago lasai lasai, elkarriketaren antolatzaillae, ura bai dela bazkaria!

Eta ni nola patxadan eseri!

Eta josteko lana? Zenbait aldiz «Lau puntun bost zimur»! Falta den botoia edo egin den zuloa, nola edo ala tapatu eta aurrera.

Ikasi nuen bai zurtzitzen, baiña orain beti presa, beti etxerako or-duak mordoillokerian lanez beteak, odolkiak ba'lira bezelaxe.

Eta irripar mingotsa alde bate-tara utziz, esanen dizuet, gauza guzieren gaiñetik emazte eta ama naizela, eta bi itz oiek aundiegik direla ez aintzat artzeko, nolanai betetzeko.

Familia bai da aurren aurrena. Familiak dena merezi du. Errez iruditzen zaizue? Neri ez.

ZAIÑORIEN BEREIZTASUNAK



Zaiñorien berelztasunak entzun al dituzu? Bista zaintzeko onak, tripetako naasketak konpotzeko eta bitaminadunak gaiñera. Gezurra dirudi kolorez bixi eta gustoz motelantzeko barazki oien baliak.

ZAIÑORI MERMELADAK

NAAS-GAIK:

Kilo bat zaiñori; kilo bat azukre; 2 laranja oso osoak, azala ta guzi. Estaltzeko adina ur.

Jar itzazu eltzean eta egosi «Olla expres» dela-koan iru ordu laurden, zaiñori xamurrak ba'dira beintzat.

Gero txinoan pasatu.

Kristalezko tupiñan gorde; txukunago eta geiago iraungo dizu.



• ERRIZ - ERRI •

Ezkurra

ERRI OSASUNGARRIA

Orrela bear du izan. Eta ez an iltzen ez diralakoz, baizik orain esango ditugun arrazoiengatik. Sinis ezazue: Ezkurra'n sartzen dena ez da geiago ateratzen.

Orain Sendagille edo Mediku dagoena, Casimiro Saizar, gerra bukatu-ta beralaxe erri ontara etorri zen, gazte gaztea zela. Badaramazki berrogeiren bat urte; orain jubilatzerara doa. Berez tolosarra da, baiña uste dut Ezkurra'n utziko dituela ezurrak. Ezkurra'koek ez dute nai andik alde egitea, asko maite bait dute Medikua eta arekin oituak daude. Onek, berriz, badaki kiñu baten zein tornillotatik faillatzen duen bakoitzak eta laster konpontzen ditu: onek gibeletik, orrek giltzurriñetatik eta orrela.

Beste kaso berdin bat, Apaiz jauna dugu: Juan Perez jauna, berez Azpiroz'koa dena. Onek, Sendagillea baiño urte geiago daramazki Ezkurra'n, eta zailantzarik gabe, emen lurperatuko dute, bere artaldearen tartean.



Don Juan Pérez, berez Azpiroz'koa, 1930'gn. urtetik Ezkurra'ko Apaiza

Artzai ederra izan du Ezkurra'k; ez dute olako besterik aisa aisa arrapatuko. Egia da: pisu xamarra da meza ematen ari denean, ez bait du sekuletan bukatzen.

Onen abizena begiratzuz, nork esan dezake euskalduna dela? Ara, ba, gutxi egingo dute euskeraz arek bezain garbi. Eta gorputz aldetik, euskaldunen modelotzat ipiñi daiteke, 1,85 gorakoa izango da beintzat; zabala, bai, eta sendoa ere. Bere gazte denboran atera zitezkeen aizkolari eder bat. Ez nuke onen «belarriondoko» bat artu nai dotriñan. Boza ere galanta du; otzikara eta bildurra ematen du illentan «Dies irae, dies illa» abesten duenean. Biltzen dira D. Klaudio, Erasun'go Apaiz jauna eta au, biak Kristo'ren «attun» zaarrak, eta atera kontuak... D. Klaudio ez du

boza aundirik; ala ere, «cun vix justus sis securus» esaten dute-nean, onak ere larri izango dirala, esperantza ederra ematen digute. «Por los...!»

Irugarren kasua, Irakasle edo Maisua, Migel Pamplona zena (G.B.) Ablitas'koa zen eta erretiratzekeo garaian il zen. Onek ere, berdin, ia bere bizi guzia Ezkurra'n igaro zuen.

Laugarrena. Oraingo Sekretarioak, Rikardo Lorda jaunak, ez daramazki orrenbeste urte, baiña bai amabosten bat, eta ez du alde egiteko asmorik.

Bostgarrena. Oraingo Maistrari buruz ez dut ezer esango. Bertakoa da, bertan jaioa, eta ez dute emendik aterako exkabadora batekin ere.

Orrengatik, denek uste dute Ezkurra osasungarriagoa dela animarentzako gorputzarentzako baiño, naiz onentzako ere ona izan. Ikus bestela: Apaiz jaunak, 73 urte, 100 kilo; Sendagillea, txiki txamarra, baiña borobil borobilla; eta Sekretario jaunak, eun da ogei kilo...

A. UXATEGIETA

Ez du umore ona galdu gure lan-kide pozgarria den A. Uxategietak, naiz azken illabetetan «Kristorenak» ikusi, zoritzarrezko osasunagatik. Anitz postuko gaitu Aingeru'ren bizkortasunak. G.M.

Bidasoa'ko Bera

BIDE-BAZTERRERA ARDOA MARA-MARA

Ez ziren asarre lengo egun aue-tako batean Doneztebe inguruko bide ertzeko bareak, izan bait zuten, ase-ase egiteko, nai zezaketeen aiña ardo eta geiago. Ez nolanaiko ardoa, gaiñera. Jerez'ko ardorik onenetakoa, alajaña! Ai, Fernando Amezetarra an izan ba'litz! Eta Amezketa'raiño joan gabe billatu aal izango genduen Doneztebe'n eta Baztan'go errietan, kamioertza egun artan mingaiñez gus-tora lamiskatuko zuen gizakumerik aski!

Zer gertatu zen? Bera'ko erria pestetan zegoala, Jerez'tik ardoz kargaturik zetorren kamioi bat irauli egin zala, ardo guzia bidera ixuriaz, Doneztebe'tik ateratzera-koan.

Zergatik irauli zan? Teknikuek or dabiltz iraulketaren zioa billatu nairik; nik ordea, badakit zilipur-dika arren egiazko arrazoia, Belate'ko sorgiñak kontatua. Ardo-billa Jerez'eraño joan bearrean, Peralta'kotik ekarri ba'zuten ez omen zien berak —Belate'ko sorgiñak— beratarrei orrelako azio zipotzik egingo.



«ITZEA», Baroja'tarren etxea Bidasoa'ko Bera'n

CARO BAROJA'RI OMENALDIA

Gizon jakintsua da Caro Baroja eta mundo zabalean ezaguna da On Julio'ren izena. Badakite Iruñā'ko Principe de Viana Erakunde-aren; or dago bera, goi-maillako lekuan, auxe begiratzeko: Erakundearen jakintza-aldizkariek bear den goi-mailla erdiets dezaten.

Euskalerrri'ko sorgiñetaz ez dira asko izango On Julio'k aiña dakitenak. Ez datik Belate'ko sorgiñak Jerez'ko ardoarekin egiña kontatu dion. Ez dakit Doneztebe'n eroritako ardo Caro Baroja'ri Bera'ko erriak eskeiñi zion omenaldirako zan ere.

Pesta ederra egin zion gizon jakintsu oneri bere erriak. Zergatik? Caro Baroja'k Euskal Erriaren alde egin duan lana nolabait ordaintzeko. Izan ere, gure erriko oiturak, ipuiak, kontu zarrak eta antziñako gauzak —iñork ez bezala— aztertu eta ezagunerazi ditu Caro Baroja'k, euskal gizonaren, gizonaren, istoria egiteko.

Gure zorionak gure zuzendari maite oneri. Jerez'ko ardorik gabe, Erribera'ko ardoarekin, topa zuri, maixu orri!

IKASLE

(14'gn orrialdera)



Bein edo bein, mota oberenako maltzurkeri pixkat agertzen zaigu Jon Paulo II-gnaren. begi ta ezpainetan.

Gaixotegian iru illabete igaroz gero, zorionez etxeratu da gure Aita Santua.

Agorrilla'ko Ama Birjiña'ren eguerdian, leiora atera zen Aita Santua, eta 100.000 lagunuen aurrean mitzatu zen eguneko bestari buruz, Jainkoari ta deneri eskerak ematen. Ogei ta bat minutoz mintzatu zen eta, jakiña, seiz-pa-zazpi izkeraz, berak oitura duen bezala. Azkenean, irriparez eta parra sortu-arazi naiez, esan zien:

«Emen nauzue, dena izerditan; baiñan ez uste, otoi, gaitzagatik dela; Erroma'ko Agorrilla'ren eguzkiagatik baizik».

Badugu gurekin, mundu denarekin, betiko Aita Santua: gizon gogorra, gizon xamurra, umore oneko gizona, Elizak eta munduak bear duten Artzai Ona.

Zorionez bizirik atera zaigu Aita Santua. Arrisku larrian egon zen, iltzeko zorian, tiroz zauritua izanez gero.

Joan den Maiatza'ren 13'an berri ikaragarria zabaldu zen mundu zabalean zear.

Turkia'ko gizon gazte bat izan zen gaitzakeri andori egin zuena, baiñan ekintza beltz ondoren, galdera au egin bearra dago: turkotar orren atzetik, izkutuan dagoena, nor da? Galdera bera egin zuten Elizaren goi-maillako zuzendariek. Epaietan ez du tutik esan eraileak.

Deneri bazter guzietan lagundu ta ongi egin, ta maitasuna zabaltzen zuen Aita Santuari, nola leike orrenbeste gorroto izatea?

Elizaren eta Kristoren etsaiek ezin ikusi izan dute beti gure Aita Santuaren jokabidea, onek zintzo ta zuzen egia aitortzen zuelako; orrengatik betirako ixildu-arazi nai izan zuten bere abotsa.

Ezkontz-austearen aurka argi ta ozenki deadar egiten zuen, eta bai ta ere berdin aur-galtzearen aurka. Gai ontaz onela mintzatu zen:

«Jainkoa munduaren bizi-emaille, ta ni bere ordezkari izanik, deadar egin nai dut nere abots apalaz, sekulan abotsik izango ez duenaren alde. Ezin da amaren sabelean dagonaren bizitza galdu!»

Egun auetan Erroma utzita, Castelgandolfo iritxora joana da Aita Santua, antxe Irailla igarotzeko asmoz, osasuna bizkortzen den artean.

Mundu guzian biotz zuzeneko gizakumeak poztu dituzte Aita Santuarengandik etorritako berriek. Poz gaitzen gu ere.

Baztan

SANTIOAK

Santioak joan dira eta ongi joanak. Lau egun lehenik eta atsedean baten pixka ondok, «errebasta» Txokoto'n. Aurten bagintuen zernai soñu, yosteta eta ikuskizun.

Santio bezperein jaialdi polit bat ospatu zuen Bera'ko Dantzari-Taldeak. Santio egunean, ohiturari yarraikiz, Meza ederra, ondok, urteroko Mutil-Dantzak. Arratsaldean, Herrien Txapelketa, Aranaz eta Baztan'go pilotarien artean; lau partida egin ziren eta baztandarrak garai.

Haizkorak izanak dira Mindegia bakarrik Aierbe eta Arregi'ren kontra. Indarrak berdintsu; baina, azkenean, Mindegia irabaztale. Oilar borroka, ahari yokoa eta bi bertsolari ere: Argiñarena errazkindarra eta Mixel «Salbador» urepeldarra, kantaldi xarmanta eginik. Laugarren egunean bi pilota partida «profesionalen» artean: Sastrustegi-Aldazabal 22, Kenedi-Txoperena 16; eta Oreja III-Salbidea 22, Berasaluze-Tolosa 16.

Hiru egunen atsedena eta «errebasta» Txokoto'n. Soñu eta dantza; haurren arteko lasterketak, yostetak eta igerilekuan ere norgehiagoketak. Antxitone'koan, bi ikuskizun: larunbatean «Los Amigos del Arte» soñularien emankizuna; igandean, Iruñe'ko «Ortzadar» dantzari-taldearen erakusketa. Yendea bildu zen eta iruñar dantzariak poliki erakutsi zituzten Euskal Herri'ko dantza zoragarriak.

Gazteak ez dira bestak asperitzen, bainan bestak joan direlarik norbaitek hartu du atsedean.


LEGATE'KO GURUTZEA

Abuztua'ren 2'an ospatu zen Legate mendian Gurutze berriaren 2-gn. urtebetetzea. Eguralde zirtzila gertatu zitzaikun, uria eta laño sendo baten menpean. Giro zirtzil horrengatik yende aunitz gibelatu zen eta guti izan ginen Legate'ko Gurutzeraño igen ginenak; halere, baginen berrogei bat lagun. Meza beti bezala herriak kantaturik eta bai bertsolari baztandar baten eskeintza hunkigarriarekin.

Datorren urtean ere, Yainkoa lagun, Abuztu'ko lehenbiziko igan-

dean, ospatuko dugu Elizkizun bera, eta aurten baino suerte hobea izaten ba'dugu, nik uste yende gehiago bilduko dela eta hala behar ere, zeren hola ezpa'da non dago baztandar kristauen zaletasuna?

M. IZETA



Oi, Legate'ko gurutze saindua, zaude beti zutik gain hortan; arriskuetatik zaindu dezazun ainbertze maite dugun Baztan



KIROLAK

ESKUZ-ESKU ETA EZKER UTSEZ

ARTZAI-TXAKURREN
NAPARROAKO
XVI'GN TXAPELKETA



Retegi II eta Galartza III Gastei'zen, eskuz-esku eta ezker utsez. Bitori'ko pestetan partidua bikaiñena

Bitori'ko pestetan primerako pillota-partiduak jokatu oi dira beti, izugarria bait da arabarrek pillotarako duten zaletasuna. Eta pillotalekua ere, Mendizorrotza'ko Frontoiak, alakoak bait dira. Ezin bestekoak edertasunez eta egokitasunez.

Aurtengo pestetan, partidu guztietan bikaiñena, Erasun'go Retegi II-gnak. eta Baraibar'ko Galartza III-gnak. -bata bestearen aurka-jokatu bear zutena zan: eskuz-esku eta ezker utsez.

Mutillak! Ura jendetza bildu zan Mendizorrotza'n! Eta ura partidua, bi napar gazte auek an jokatu zigutena. Gezurra dirudi, berez ezker ez diran bi pelotarik ezker utsez ain ederki jokatu aal izatea. Lasai jotzen zuten pillota zazpitik zazpira tanto jator luzetan, eta baita tanto oiek, ezkerreko txokora edo esku-biko zabalera pillota bidaliaz, ederdi bukatu ere.

Galartza'k irabazi zuan 22-15, baña era berean irabazi zezakean Retegi'k ere. Jokatuko dute berriz ere bein baño geiagotan bi mutil auek partidu ori, ez bait zan Mendizorrotza'n nor geiago zan argi gelditu.

Txaloak bai! Ugariak eta ozenak izan ziran tanto bakoitzean eta partidua bukatu ondorean ikusleen txaloak.

Ta zuretzat, irakurle, nor da aundiena: Erasun'goa ala baraibartarra?

ERASO

GIZONAK AIDEAN



Denbora puska bat bada giza-txoriak ikusten ditugula ixil eta xarman-garri aidean, Naparroa'ko zeruan zear.

Kirol berri ori -gizonak aidean zeruetan zear, gizonen betiko asmo ori-egi biurtu dute gurearteko gazte talde batek.

Maiz egiten dituzte beren saio, ikusketak eta txapelketak, Monreal edo Elo iriaren inguruetan. La Higa de Monreal, Elo-Mendia edo Elo-ko Igoa aukera bikaiña bait da, tontor artatik saioeri asierak emateko.

Inguru aietako bideetan zear dabiltzanak, beren berebillak geldituta, zoraturik ikusten dituzte. «Giza-txori» aien edertasuna mirestu, ta gogoz txalotzen dituzte gure gazteen ausardi ta yayotasun.

Azken-igandean artzai-txakurren Txapeleketan, Amaiur'ko Etxeberria'tar Patxi bere txakur LABRI ezagunarekin Txapeldun atera zen 6'gn aldiz. Ain zuzen ere Uarte-Arakil'go «Gainbera» zelaian, auek artu zuten parte ta onela gelditu ziran zerrandan:

1. LABRI, Patxi Etxeberria (Amaiur)
2. FINO, Jose Lizarraga (Unanue)
3. PINTTO, Jabier Beregaina (Uarte-Arakil)
4. TXIKI II, Rikardo Goikoetxea (Uarte-Arakil)
5. LINDO, J.M. Ixtillart (Amaiur)
6. LAIKA, Pedro Ansa (Arano)
7. NERE, Migel Anjel Lizarraga (Unanue)
8. LABRI II, Juan Arozarena (Urdax)
9. BONET, Martín Elordi (Arribe)
10. TXATO, José I. Mayor (Unanue)
11. MOTXA, Domingo Zubillaga (Leiza)
12. LISTA III, Fermín Legasa (Lesaka)
13. ARGIA, José Legarreta (Arano)
14. LISTA II, Migel Zugarramurdi (Goizueta)
15. ROBERTO, Manuel Fernández (Urdax)
16. TXIMIXTA, Patxi Xabier Krutxaga (Urzainki)
17. KAPOTE, José Billabona (Leiza)
18. MORENO, J. M. Urreaga (Atallo)
19. GORRI, Kepa M. Olano (Leiza)
20. TXIKI II, Ignazio Salaberria (Urbasa)
21. BAT, Juan Mari Leonet (Arano)



SUMARIO

- ZUEN ATARIAN.** De nuevo a tu puerta, euskaldun; desde Marzo del 80: silencio, cambios, nueva andadura. Temas sencillos, euskera de siempre.
- LIZARRA'TIK.** Desde la vieja y vascona Estella, saldrá desde ahora la Revista «PRINCIPE DE VIANA» en euskera.
- EUSKALERRI'KO LEIOA.** Ventanal de Euskalerría: noticias.
- DEMOKRAZIA.** Respeto, dialogo y -la cota más alta- tolerar al intolerante.
- IRUJO IL ZITZAIGUN!** Palabras del Diputado Foral D. J. Malón, sentido homenaje a D. Manuel de Irujo.
- DIBORTZIOA** Reciente la ley civil; en perspectiva, conflictos de conciencia.
- ALKOOL IZUGARRIA.** Temible alcohol, por «Mediku Zaarra».
- SEME-ALABA MINDUAK.** Los hijos resentidos; sucedido en Nueva York. «Don Bisente».
- PELLOKOKOKERIAK»** Cosas de Pellokoko. «Albisu'ko Mearra».
- BERTSOLARIA.** Fallecimiento del gran «Martin». Versos de «Bilintx», otro de los «grandes».
- EUSKAL BARATZA.** A. Kardaberatz. «Que pierde terreno el euskera» No es falta suya, sino vergüenza nuestra».
- SUKALDEKO TXOKOTIK.** «Fraxke», mujer moderna, «realizada» -palabra de moda- ha perdido la paz entre la cocina y su otro lugar de «trabajo».
- ERRIZ-ERRI.** EZKURRA: salubridad legendaria, A. Uxategieta. BERA: Jerez por los suelos y brindis por D. J. Caro Baroja, Ikasle. BAZTAN: «Santioak» de Elizondo; la cruz de Legate, M. Izeta.
- AITA SANTUA ETXERATU.** Criminal atentado; larga, feliz recuperación.
- KIROLAK** Deportes: un partido con la «zurda», vuelo libre en Montreal; Perros de Pastor en Huarte-Araquil.
- ZUZENDARI BERRIA.** F. Redón Huici al frente de PRINCIPE DE VIANA.
- ARALAR'KO ESMAILAK.** Robo y recuperación de los esmaltes de Aralar.
- EZ DAKIZULA APUSTU...** A que no sabes..., por «EGIÑA»

Zuzendari berria

Zuzendari berria du Institución **Principe de Viana-Biana'ko Printzipe Erakundeak**: Fernando Redón Huizi, Iruña'ko semea, arkitektoa, 51 urte dituen gizona. J. Malón Diputaduaren eskutik etorri zen gure Erakunde onen Zuzendaritzara.

Ongi etorria bedi. Bere esanera arkituko gaitu beti, zintzo.

Arkitektoa dela esan dugu, baiña ez nolanaikoa, arri gogorrean majiña bat edertasun mamitutako gizona baizik. Bereak dira «**Huarte Dorreak**», «**Untzak Etxea**», «**San Pedro'ko Konbentu berria**» Iruña'n; Elkano'n, «**Ubarmin Gaixoe-txea**»; Lizarra'n, «**Salvat Liburu argitarola**»; eta einbat eta ainbat egintza.

Kultura zabaleko eta jakintza aundiko gizona da, eta jakintzaren serbitzura datorrela esan digu, gure Erakunde ontara. Bai ta ere, gogoia zabal eta biotza irikia dakarzkiala, Naparroa'ko goi-jakintza eta erri jakintzaren serbitzura, itz eman zigun bere esanera lan egin bear dugunoi.

Lanaren maitale aundia izan da bera; lanaren, ez bere buruaren maitalea:

—Ezait ajolarik nere izenik iñork aipatzen ez ba' du ere, Biana'ko Printzipe Erakundearen izena, nere laguntza apalaren bitartez, ospetsu egiten ba'da.

Eta lan egiteko asmo beroakin dator. Zer egiñik dagoen bitartean, an egongo omen da bera, denboraren arretarik gabe, lan egiteko beti prest.

Euskerari buruz auxe esa digu:

—**Axa-axaletik bakarrik ezagutzen dut, bearrezkoa den ez aiña; alare, odolean daramat Euskera-ren maitasuna, ez bait ditut alperrik eramaten euskal abizenak.**

—Eta «Principe de Viana» euskal aldizkari oni buruz, zer?

—**Ainbeste mille arpedun en izendegia berriturik, eta korreobidez bidaltzeko xistima berri bat artuz gero, bereala agertuko da gure euskal aldizkaria.**

—Eta...?

—**Eta? Ez dela orain arte gertatu dena gertatuko. Aldizkaria ez zegoen ongi txertaturik Principe de Viana Erakundearen, izenez ezik ez ba'da; bitartean, egunoroko bearretan, dena babes-gabe ta orkonpon!**

G.M.

Aralar'ko esmailak

Euskaldunentzat oso gogoangarria dan egun batean (1979'go urrillaren 25'ean) Aralar'ko Mikel, deunaren ermita agurgarrian, lapurreta edo ebas-keta makurra, zearo beltza: Esmailazko erretaula bikaiña, munduan besterik ez bezalakoa, gau batez ebatsi edo lapurtu egin zuten.

Zebait gizaki argi ta trebeen lanaren bidez, eta Jainkoaren laguntzaz, bi-iru zatitan aurkitu dituzte. Kobre-esmaillezko 19-20 ale Frantzia'n aurkitu zituzten eta beste 15 Itali aldean.

Oraindik falta dira batzuk, lau-edo. Iges egin duan lapur baten esku daude. Bada itxaropenik aski, falta direnak ere aurkituko dituztela.

Berri pozgarria jakitean, euskaldun guztiak asko poztu dira, baiña batez laguntzen dio Aierbe'tar Inozentzio, Aralar'ko kapellau ezagunari. Gauza bera Zirarda Gotzai jaunari, ta Eliz-barriari, Diputazioari ta bertako arduradunerri.



Aralar'ko erretaularen erdian dagon Ama Birjina, esmailaz egindako Iruia

EZ DAKIZULA APUSTU...

—Euskalerrri'ko gaztaiñen miña ez dela gaurkoa; beti ere, orain dela eun urte, gaztain geiena galtzen ari zelakoz?

—Munduan den zezen-plazarik aundiena Tolosa'koa dela, bein ere betetzen ez delako?

—1866'ean, Tolosa'ko «Sanjuanetan», seigarren zezena bostgarrena baiña leenago, il bear izan zuela Fraskuelo zezen-iltzailleak?

—Arriaga, «Españi'ko Mozart» deitua izan dena, naiz euskalduna izan, 19 urterekin il zela?

—Mundu onetan ondo bizitzeko iru gauza direla bearrezkoak, esaera zaarrak dionez: «arakiñarekin gosaldtu, ixkribabakin bazkaldu eta mandazayekin afaldtu»?

EGIÑA